

Bixente Barandiaran

*Arrasate,
Gipuzkoa
(1911-2004)*

Aurkibidea

Biografia



1911an jaio zen Apotzaga auzoan eta bost urte zituela Arrasatera joan zen bizitzera Markoalde baserrira (lehen Marko Etxeberri izandakoa). Gurasoak biak Apotzaga auzokoak zituen. Errementari eta ferratzaile ofizioetan aritu zen 2001. urtera arte eta 90 urterekin erretiratu zen.

Zintak

ARR-023

- **Proiektua:** Dialektologia-EHU
- **Elkarrizketatzailea(k):** Garmendia, Itsaso
- **Data:** 1999-01-01
- **Iraupena:** 31 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Emalea:** Zuazo Zelaieta, Koldo

ARR-184

- **Proiektua:** Burdina: errementariak eta perratzaileak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 62 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Transkribatzailea(k):** Agirrebeña, Aintzane - Arana, Iñaki
- **Emalea:** Arana, Iñaki

ARR-185

- **Proiektua:** Burdina: errementariak eta perratzaileak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Arana, Iñaki - Oregi, Lide
- **Data:** 1994-01-01
- **Iraupena:** 13 min
- **Euskarria:** Audio Analog
- **Kodifikatzailea:** Alberdi Bilbao, Itziar
- **Emalea:** Arana, Iñaki

Pasarteak

1. Errementari lana; lan-baldintzak

- **Erref:** ARR-184/002
- **Iraupena:** 0:03:39. **Hasi:** 00:00:15. **Bukatu:** 00:03:54
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Bixente Barandiaranek errementari lanbidea noiz eta nola ikasi zuen kontatzen du. Lan-baldintzak. Soldadutza egitera joan eta bueltatu zenean lanbide berri bati ekin zion: perratzaile.

Transkripzioa

- Bixente, kontau pixkat zela hasi ziñan ofiziua ikasten. Ze urtetan eta...
- Bai, bai. Ba nik neuken hemezortzi urte. Ezta? Ugartenien fabrika
nebillen lanien ta atsalde baten, ba, hor Zarualden banindoiela haruntza
pasio bat eitten, handik etorri zan beste mutil bat, orduen errementerixen
kriau ebillen. Ta, joño! Ba sekula [berbarik in barik egongo nitzen ta, joño,
"Keai!", "Keai!", [hola]. Ta "nora hoie?" "Ni kalera, ta heu?", ta "ba, ni hor
pasio bat eittera". Hola. Hola [pasa...] Ta gero baten akordau jaten "joño!

Ikusi ein bihar juat ze lan eitten dauen horrek edo...zerien, taillarrien, errementeixen". Fan nitzen ta han ebillen suteixen ta, uezaba sutei baten ta bera beste baten ebillen lanien. Ta ni begira egon nitzan berakin. Ta begira egon apur baten ta "[...] " ta urten ein nauen. Ta uezabak esan [eutsan]: "Zein zuan hori?" ta "hori? Hor... zerien, [Don Turion] jardinen atzekaldien bizi da hori" ta "A! Bai, joño! Horren aitta ezauketan juat. Bai, gure [aittakin igeltsero pioi] eitten juan. Ezauketan juat. Ta nun jabik lanien?" ta "Ugartenien", "Joño, Ugartenien?" "Bai". Itxuria kriaau bihar euan berak be ta esan eutsen, mutillorri esan eutsen: "Ikusten duanien esaixok gure badau etorri hamahiru erriel egunien pagauko [deutsatela] ta ofiziua erakutsiko [eutsala] ta gaiñera, goixian zazpiretan hasten gaittuk lanien, ta armozua emongo [deutsatela]". Juntau [giñuan] kalien ta esan eusten hori. Ta etorri nitzen etxera ta esan notsen aittai: "Aitta, hau hola ta hola" ta "Joño! Bai, joño!" Bera pioia zan, gure aitte, ta "Bueno, ba... Balixo badotsu, ez badotsu, fan ta ikesi errementari!" Fabrikan nebillen ta hango enkargauai esan [neutsen]: "Juanito, zera, errementari ikesten [Zarualdera] fan bihar dot", "Joño! Ondo jak! Bai, ikesi! Ikesten duanian etorri e, hemen egongo dok lana horetako ta!" Orduen fabrikan be lan asko eitten zan errementeixen suteixen. Ta holaxe fan nitzen, holaxe [pasa be]. Ta hor ibili nitzen, ba, soldau fan arte. Urte bi ein nittuan. Nik hemezortzi urte naukan ta [...]. Ta hau beste kriaauu urte bete zaharrao zan ta hau fan zan [soldau]. Ta ni ta... uezaba ta bixok gabizala, uezaba... kanzerra formau jakon estomaguena ta hil ein zan. Ta ni bakarrik [geratu] nitzen suteixen. Eta semie eukene hamabi urtekue ta amak esan eutsen: "bueno, ba, oin fan hari Bixenteri lagunketan". Ta hamabi [urteaz] hori hasi zan neri lagunketan ta bixok ibili giñan lanien. Gero, ba... ni soldau fan bihera tokau jaten. Ha etorri zan ta ni soldautzara fan nitzan. Gero handik etorri nitzanien, ba, hemen hiru lagunendako, ba, lana... badakitzu, hiru lagun asko zan, ta gutxitxo. Ta ibiltten giñen, ba, batek egun bat sartu, bestiek beste bat ta hola ibiltten giñen. Denpora gutxixen ibili nitzan. Ni, anaie igeltserua zan ta hor [Kanpazarrien] mikeletiak euzen, zera euen... Ta harek etxia eitten [...] ta haretxeaz pioi ibili nitzen apur baten. Ta hemen Mondrauko beterinaixuek, Erradorrek, ba zerien, Vittorixan, beterinaixo batek eukene zaldixak perratzeke perratokixe, ta gero ifiñi euen, ba, perratokixe ganauandako. Ta perratzaillia biher [...] bat baeuken, baiña bi biher zittuen ta honi esan eutsen, aber, bat topetako. Ta horrek esan eusten: "Hi, Barandiaran, [joño, ba han], Vittorixen, hantxe Portal del Rey-n Romaldo Errauskin beterinaixue, eskatu eustek zer bat, perratzaillie bat fateko ta fango bahitze..." ta "Beno, fango naz".

2. Perratzaile lanean nola hasi zen

- **Erref:** ARR-184/003
- **Iraupena:** 0:02:06. **Hasi:** 00:03:54. **Bukatu:** 00:06:00
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

Perratzaile lanean nola hasi zen.

Transkripzioa

Da olaxe fan nitzen. Da aprobia in biaostala ta egun bat in nauen, da

ezostan ezebe esan; bigarren eunien, atsaldien, esa osten e: "Oiga Barandiaran, bueno ya le hemos visto trabajar y le voy a pagar ocho pesetas al día". Da gaiñera emendik urten ezkeror zortzi pezeta gutxitxo zan, apopillo; esa notsan: "Mire usted Don Romualdo, yo por ocho pesetas no salgo de casa", da amasei pezeta pagau osten, ta etorri nitzen etxera. Bueno, bagabiz lanian ba anaiakin pioi tta ola, andik illabete batera ero deittu ostan barriro: "I Barandiaran, oiñ an beste betenarixo batek esaostek Bitorixako batek perratzaillie falta uela, perratzaillie biaula, ta fango baitze", esa ostan: "Fari, oso frankue dok a gizona, oso frankue dok eta". Da bueno, eguen baten Bitorixan egoten zan eguenien ferixia, da fraka azulekin fan nitzen, da amarderdi inguruan da, bueno probau in bioula ta, bai, asi nitzan lanian, bixok, bestia ta neu, da di-da, di-da!

3. Perratzaile lana

- **Erref:** ARR-184/004
- **Iraupena:** 0:02:05. **Hasi:** 00:06:00. **Bukatu:** 00:08:05
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Ekonomia eta industria » Lan-baldintzak

Laburpena:

Perratzaile lana. Soldataz gain, jasotzen zituzten eskupekoak, abereen perra zaharrak... beraieendako izaten ziren. Abereen kaskoak traperoei saltzen zizkieten.

Transkripzioa

Ta hasi nitzan lenien. Bueno, ba, aprobau ein biher doula, ta "Bai". Hasi nitzan lanien, bixok, [bestioi] ta neu di-da, di-da, di-da lanien. Orduan hogeta bi urte neuken nik eta sasoia orduen edozer gauza eitteko! Ta han txaleta euken kamiño onduen berak, eta prismatikuekin bera eta uezaba ta kriaue [urten biher euenori] begira egon zien lana zela eitten neuene, ezta? Ta nik ez neuken arduraik lana eitteko, di-da, di-da, di-da lanien. Hor hamaiekek aldera etorri zan [urten biher euenori] ta beste lagunai esan [otsan]: "Enrique, ya me voy". "¿Cómo?", "Sí, ya hemos estado mirando de casa y a [Antonio] ya le ha gustado la forma de trabajar que tiene". Holaxe. Fan zan hori ta [esan osten]: "Ba mutil! Lasai ibili e! Lasai ibili! Badakitzu, [nerbixuak ez...] beti egoten ta holakuetan apurtxo bat, ezta? Ez nik asko [neukelako] nerbixorik. Nik baneuken nere [segidia], baneuken, ezta, baiña... bueno. "Bai, lasai ibili" ta fan zan. Hamabixetan isten eutsen lanari, hamabixak edo... ba, idixek perratzen [geunien] itxi ta bazkaitarra faten giñan. Ta gero ordu bixetan barriro hasten giñan, zeatik bixen bittartien, deskansau apurtxo baten ein ein biher izeten zan. Ta hamabixetan etorri zan beterinarixuori, esan eusten: "Bueno Bizente, ya le hemos visto trabajar y está bien, ya me gusta la forma de trabajar que tiene usted y eso y... Bueno, mire, estos hace diecisiete años que están trabajando conmigo, a estos les pago trece pesetas al día, a usted le voy a pagar doce pesetas". Nere artian "diferentzia edarra jak, [hik] zortzi ta honek hamabi". "Además --esan osten-- además la chatarra de las herraduras viejas y todo eso, para el trapero y eso, lo que cogen allí para ustedes, las propinas también para ustedes, el casco que recogen aquí también para ustedes". Oseake, guk kaskuak [kentzen...] danak isuskixaz batu gabien, eralgi ta zakuen sartzen geuen ta pagaten euskun "cuatro pesetas el kilo" traperuak.

4. Perratzaile kontuak

- **Erref:** ARR-184/006
- **Iraupena:** 0:01:02. **Hasi:** 00:08:34. **Bukatu:** 00:09:36
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

Albaitariak eskainitako soldata eta lan-baldintzak. Eskupekoak. Behin aitari 500 pta eman zizkionekoa: "Aitta, ferixara fan eta behirik ederrena ekarri".

Transkripzioa

- Bueno, ba holaxe, conforme geratu nitzan. Bueno, ba, gaiñera "el crin de los caballos" ta horreik ebaitten [gittun], ta horreik be erun eitten zittun brotxak-eta eitteko ta. Ba, propiñetan, ni hasi nitzan, ba, martixenien [...] inguruen hortxe, egun bat gorabehera hortxe, eta hartzen [gittuan] propiñak kaja baten ipintzen [gittuan] danak, ta zapatuetan kontau ta bestiek hartu ta eruten zittuan kaja de ahorros-era eta apuntau eitten zittuan. Eta Blanca bezperan atara ta partido eitten [gittuen] ta: "Pues me tocó cuatrocientas ochenta pesetas cada uno eh, ¿qué te parece?". Orduan zer zan...! Ze diru zan ha, e?! Nik hareik hartu nittuen, cuatrocientas ochenta, beste hogei pezeta ifini, etorri nitzan etxera, ta etxien beti aitte,

ba, ganau merketxuekin ibilli zan, [merketxuen...], ezta? Ta orduan bostehun pezetaaittik [eukozun] behirik onena [igual] orduen. Ta etorri ta esan [notsan] aittai: "Eiba bostehun pezeta aitta! Ta ferixara fan ta daonik behirik edarrena ekarri!". Ta holaxe ekarri geun behixa edarra. Ta holaxe, haintxe jarduten [geuen] gero.

5. Gerra sasoian nondik nora ibili zen

- **Erref:** ARR-184/008
- **Iraupena:** 0:04:11. **Hasi:** 00:10:00. **Bukatu:** 00:14:11
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Borroka
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Ekonomia gerra garaian

Laburpena:

<p>Gerra Zibila: Arrasate; Gasteiz. Gerran nondik nora ibili zen kontatzen du. Bixenteren ugazaba, Zaldieriako kuartelean albaitaria zen; gerra sasoian han hasi zen lanean Bixente, zauritutako zaldiei ferrak ipintzen.</p>

Transkripzioa

Olxaxe antxe jarraitu neban gero gerria akabau arte ero. Gerria asi zan, da setienbrian, veintiseis de setienbre, au Mondrau artu uen eguna, ortik Bedoñatik sartu zien tropak, eta orduantxe nie kintia deittu uen, "la quinta del treinta y dos", ta oixe, Bitorixa geldittu zan Francon alde.

6. Ferratzaile ogibidearen nondik norakoak

- **Erref:** ARR-184/011
- **Iraupena:** 0:01:07. **Hasi:** 00:19:05. **Bukatu:** 00:20:12
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak
- Baserria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak

Laburpena:

<p>Ferratzeak zenbat balio zuen. Ferra berriak noiz ipini behar izaten ziren. Gaur egun ere ferratzen jarraitzen du.</p>

Transkripzioa

- Eta zuk badakizu, zenbat kobratzen zebe orduan perratzia?
- Pezetia, barrixa pezetia; bestia erriel bi.
- A! Erriel bi konpontzia.
- Bai. Zaharra, ona baeuen, erriel bi, ta bestela pezetia. Han Vittorixan danak barrixek, han ez zan begiketan, ra! kendu ta barrixe. Gero halaxe etorri eitten zien, gastaute edo, gero idixak [euezen...] ra! Kaskuak be edarrak eta euken be bai ta untzak sartzen zotsen, bueno!, ta josten zotsen ondo, ta perria aguantetan auen... bua! gastau arte. Bueno, gastau arte... Behin bi hillebete ta erdi ezker, perrie kendu ta barrixa ipini bihar jako, zeatik kaskue hazi eitten jate, ta gero ez die ondo ibiltten.
- Eta kaskua zeukengan nolabait gaixotuta edo, zeuek eitten jatzuen kuria?
- Bai, bai, kurie bai, oin be hola eitten dotset nik. Hementxe daukat

bisturixak [...] Hortxe [dau] bisturixak eta. Bai. Nik oin be, ba, behixa kojo daonien-eta berak etorten die ta hartu kotxien ta eruten naue, ein ta barriro kotxien etxera ekarten naue.

7. Errementari lanarekin noiz eta nola hasi zen

- **Erref:** ARR-184/014
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:21:42. **Bukatu:** 00:22:30
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Bixentek baserria zuen eta errementari lana egiten hasi zen bertan: erremintak zorroztu, konpondu...</p>

Transkripzioa

Eta emen Mondrauen noiz ipini ziñuan sutaixa? Hau ifintzia, ba, guk basarrixa eukaun emen ba ganauekin-da, or ibiltze giñan, sartzen nittuen lekuen olako lokaltxo bat preparau nauen, da asi nitzen nere kontura lanien, errementari lanian bai. Da gero ba andik ona etorri nitzan, da au ifini nauan, da orduan ba lan asko zan da or ni perratzaille ibili nitzen lekuko ori, mutiku ori, ori be ba Ugartenera o Ulgorrea sartu zan, da geo ba jentia neureana etortze zan geixena, da emen lan asko eoten zan gero, zea basarriko jenerua, osea basarriko erreminttie itte zan, goldak, burdixak, arreglau, dana, bueno, baserriko gauza dana.

8. Fabrikan lan egiteaz gain, errementari

- **Erref:** ARR-184/015
- **Iraupena:** 0:00:48. **Hasi:** 00:22:30. **Bukatu:** 00:23:18
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Errementariaren lanak zeintzuk izaten ziren: goldak, gurdiak konpondu; baserriko lanabesak.

Transkripzioa

- ...basarriko jenerue, osea, basarriko erreminttie eitten zan, goldak, burdixek, arreglau... dana! Bueno, baserriko gauza dana.
- Zeuk bakarrik eitten ziñuan?
- Bai, neuk bakarrik.
- Lana ein fabrikan ta...
- Ugartenien, ta gero hona etorri ta hemen. Hogeta hamar urte ein nittuen fabrikan, ta, ba, hoge bat urtien eingo nittuen han [lana ein], etorri hona ta hemen ardau trago bat ein, ta [...] hemen lanian gabeko hamarrak arte!
- Ordu mordo bat... A! Gabeko hamarrak arte?

- Bai. Ta gero afaldu, [holaxe] apurtxo bat [ein], ta goizeko seiretan jaiki, ta barriro oindio apurtxo bat igual zazpitterdiak arte. Gero lanera barriro hara. Puf...! Lana? jo...
- Baiña ezaun da lanak ez dabela gizona zahartzen, zeaittik zu oso ondo zare!

9. Bixentek baserriko tresnak egiten zituen

- **Erref:** ARR-184/017
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 00:23:41. **Bukatu:** 00:25:20
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Euskara » Lexikoa
- Baserria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Baserriko tresnak egiten zituen: igitaia; artarea; burdinarea; goldak.

Transkripzioa

-Ta ze erramintta eitten ziñuzen?
-Ba itten nittuan, ba artaria, burdiñaria... Laixaik orduan ez zan itten, arreglau bai batzun batzuk, ezta; gutxi, ia laixia itxitta euen. Geo goldak, "arado gramana" esate akonak, horreik golda haundixok; ba horrek puntak eta kutxillak eta zapatak eta gastau itten akue, ta harek berriztau ta barrixak ifiñi ta. Kutxillak gastata zienien, beste punta zarrak ebai, ta haekin pegau, ta haekin kutxillak eta. Geo etorten zien inda, ta geo indadakuk be ba preparauta ifiñi ta antxe ibiltze giñan; osea dana: artaria, burdiñaria, goldia, goldatxikiñak, dana, dana, gauza asko; batien tornillo bat biher zala, bestien ez dakit zer biher zala ta ba danak, danei obatu, obaketa gotsan.

10. Erreminta ongi zorroztearen garrantzia

- **Erref:** ARR-184/020
- **Iraupena:** 0:00:53. **Hasi:** 00:27:44. **Bukatu:** 00:28:37
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

<p>Zorrozteko harria; zorrozte prozesuaren inguruko azalpenak.</p>

Transkripzioa

- Bestela lehen hankiakin eitten zan ?
- Bai, hankiakin, gaiñera bera harri haundixa zela dan, behin hasi ezker bere pixue, bere pixuekin, ezta? Fan eitten da, norberak lagundu apur bat ta bere pixuekin buelta eitten dau. Aizkorak ondo zorrozketan zien, edarto; gozue emoten otsen aizkoriai, gozue, ez dakitzu? Ha, ha... Honek beste zerok harrizakin ta [zorrozuta] ez die, ta ha gozue da... aizkorie sartu ta egurrai obatu berak aizkoriek eitten dotsa, ez dakitzu? Dja! obatu berak. Ha gauzie e? Ha gauzie! Hori aizkolarixek eta badakixe, [ezta], dabixenak.

Oin, ba, ez da eitten. Lehenao basora ta faten zienak-eta be, ba, betik, ba, egurra botatzen-ta aizkorekin dana. Ta harekin dda! dda! ta harek igerri eitten otsen, e? Igerri! Bai. Zela zorroz-tuta [euen] igerri eitten [otsien]. Oin ez, baiña orduan bai.

11. Baserrirako beharrezkoak ziren tresnak eta lanak egiten zituen

- **Erref:** ARR-184/026
- **Iraupena:** 0:00:56. **Hasi:** 00:33:21. **Bukatu:** 00:34:17
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Lurra lantzea
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Bixentek izan zuen lehenengo sutegian, baserriko tresnak egiten zituen: aizkorak zorroz-tu, mehetu... Garai hartan astoak ere perratzen ziren.

Transkripzioa

Orduan, dana basarriko lana auen, orduen etortzen zien kutxilluek eta horreik karnizeruek beste etxetik zorrozketako, ta axkorie ta horrek zorroz-tu, ta arreglau ta batien e axkorie sendo daolako meetu te aixoz-tu ta bueno, gauza asko! Ta gero errementie, beti errementtie eitten eoten nitzen, batek ez bada bestie beti etortzen zan da. Geo gaiñera astuek be asko perretan etorten zien, orduen astua zan ba basarrittik-eta etorten zien kalera astuekin, ta perra barik ezin leikien ibili.

12. Perratzeko erabiltzen ziren erremintak

- **Erref:** ARR-184/027
- **Iraupena:** 0:03:45. **Hasi:** 00:34:17. **Bukatu:** 00:38:02
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriko animaliak
- Baserrria » Baserriko lanak » Baserriari lotutako lanbideak

Laburpena:

<p>Perratzeko erabiltzen ziren erremintak: tenazak, mailuka... Astoendako perrak beraiek egiten zituzten.</p>

Transkripzioa

Eta ze erramintta erabiltzen ziñuen perratzeko? Emen daukat "el botiquín"; oneaz kaskua ebakitze otsien; orri tenazak deitze otsaun, tenazak; au pujamantia; au maillukia. Botikiñe emen daukat, au da desinfetante, betelin fenikó, au farmazian eoten da; ta orrek rie bisturixak, bat aunditxuaue, bestie txikitxuu da, segun. Bisturixa deiketa gotsen guk, erderaz da, baiña... Onek alde bixetan dauke zorrotza, ezta, da kaskue pujamantiaz apurtxo bat garbittu itten dotsau ganauei, ta gero ba norberak ikusi birau nun euki leikien min, ezta; igarri, jeneralmente igarri itten dotseu, da an artu te rra, rra, rra! oneaz kasku kentzen kentzen izten da, ta

anketan da ba pusa daukan ero odola jatsixa daukan ero, onekin topate notsan. Da aura bisturixa ba onek ola nunbaitten ebai biadanien, ba orpuen ero pusa barauko, ba orreati xssaa! ebai da atara ta itteko. Ta oneik die ultzak, onek die ganauen untzak, osea perrienak, oixe da. Ta onek rie ba perrak, oiñ tamaiñue ba zeak kaskuek aunditxuauek txikitxuauek eoten die ta ba, perrie topau biajak bere tamaiñorako. Onek rie astuan perrak, bai, aston bat noizbaitten kojo eoten da ta orduantxe ifintteko, bestela oiñ ezta erabilten, e. Eta perra asko eitten ziñuzen? Astuendako? puff!, beti batonbat, beti egunero aston bat perretako, bai, bai, geuk inddakuek.

13. Monterroneko kondearentzat lanean

- **Erref:** ARR-184/030
- **Iraupena:** 0:02:09. **Hasi:** 00:40:01. **Bukatu:** 00:42:10
- **Multimedia:** audioa online entzungai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Pertsonaia ezagunak
- Lanbideak » Antzinako lanbideak » Errementariak, ferratzaileak

Laburpena:

Bixentek lan asko egin zuen sasoi batean Monterroneko kondearentzat; 28 urtean jardun zuen berarentzat lanean.

Transkripzioa

Eta zuk, Bixente, Monterroneko kondiandako lan asko eitten ziñuan, ezta? A bai! Horrei bai! Leneko lana in otsen herraje aundi bat, honeik´e palaziutan eta eoten die herrajak "que sobresalen de la pared", ez dakitzu, horrek haundixok, hola behitik urtetzekuk, bat euken ta harekin gura euen, kapillia eukon or, oin be han eongo da, ta harakotxe erdi bi indda teillekin itxi gura euen, ta bueno, in notsen lenengo lana haxe izen zan; ta gero beste antortxa bat eukitzeko holako antxiñeko, bueno, dana antxiñeko gauzie gustaitten jakon. Bera Madrillen bizi zan? Bai, hona etortze zan uran, hemen ez dakit hiru hillabete edo zenbat itten zittuen, ta hemen itten notsenak gehixenak Madrida eruten zittuan, bai, Madriden erregalo itten otsen beste batzui, eurek euren artien erregalua.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-09-06

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com